



HONDARRIBIKO UDALA



HONDARRIBIKO UDALA

Erref.: GV/AEL

BANDO/BANDO

Hondarribiko Alkate-Udalburuak, Bandoaren bidez, dekretu hau eman duela jakinarazi die bizilagunei eta herritarrei, oro har:

Por medio del presente Bando la Alcaldía-Presidencia de Hondarribia pone en conocimiento de sus vecinos y de la ciudadanía en general, que ha dictado el siguiente Decreto:

“COVID-19 (Koronabirus) delakoak sortutako egoera dela eta, osasun publikoan duen eragin nabarmenarekin.

“Ante la situación creada por la incidencia del COVID-19 (Coronavirus), con manifiesta afección a la salud pública.

Kontuan hartuz egoera honen aurrean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zenbait gomendio eman ditu eta horien artean, hartutako neurrien maila handitzea eta adinekoen egoitza-inguruneari ez ezik, adinekoak biltzeko espazioek eta haien jarduerak (dantzak, karta-jokoak, bingo-jokoak ...) ordezkatzen duten komunitate-inguruneari ere zabaltzea, Osasun Sailak egungo egoeraren eragina minimizatzeko emandako neurri unibertsalekin bateraezinak baitira.

Resultando que ante esta situación, por parte del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y Osakidetza se han emitido una serie de recomendaciones, y entre ellas elevar el grado en las medidas adoptadas y hacerlas extensivas no sólo al medio residencial de personas mayores, sino también al medio comunitario representado por los espacios de reunión de personas mayores y sus actividades que frecuentemente suelen ser incompatibles (bailes, juegos de cartas, bingos,...) con las precauciones universales dictadas desde el Departamento de Salud para minimizar el impacto de la actual coyuntura.

Horregatik guztiagatik, Osasun Sailak gomendatzen du aldi baterako ixtea Autonomia Erkidego osoan udal-eskumenetik kudeatu ohi diren adinekoen etxeak eta klubak (jolas-jarduerak egitekoak).

Por todo ello, desde el Departamento de Salud se recomienda la clausura temporal de los espacios de reunión conocidos como hogares y clubs de personas mayores (destinados a actividades lúdicas) habitualmente gestionados desde la competencia municipal, a nivel de toda la Comunidad.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.10 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.a) eta analogikoki m) artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta.

Considerando lo dispuesto en el artículo 17.1.10 de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi, y 21.1.a), y analógicamente m) de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local



**Alkatetza-Lehendakaritza honek hauxe Esta Alcaldía-Presidencia RESUELVE:
EBATZI DU:**

LEHENENGO.- Kasino Zaharra-Jubilatuen Etxea eraikina aldi baterako ixtea, eta Kasino Zaharra-Jubilatuen Etxeak antolatutako jarduera guztiak aldi baterako etetea, bai eraikin horretan egiten direnak, bai eraikinetik kanpo egiten direnak ere.

PRIMERO.- Proceder al cierre temporal del edificio Kasino Zaharra-Hogar del Jubilado, y al cese temporal de todas las actividades organizadas por Kasino Zaharra-Hogar del Jubilado, tanto las que se desarrollan en dicho edificio, como las que tengan lugar fuera del mismo.

BIGARREN.- Herritarrei, oro har, eta bereziki, adinekoen kolektiboari, prebentzio-neurriak hartzeko eskatzea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren gomendioei jarraituz, eta horretarako, jendaurrean emandako jarraibideak betez”.

SEGUNDO.- Solicitar de la ciudadanía en general, y del colectivo de personas mayores en especial, que atendiendo a las recomendaciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y Osakidetza extremen la adopción de medidas preventivas siguiendo al efecto las instrucciones hechas públicas”.

Azkenik, jakinarazten da Alkatetza-Udalburuak behar diren ebazpenak hartuko dituela COVID 19k (Koronabirus) eragindako pandemiak osasun publikoan izan dezakeen bilakaeraren arabera, eta herritarrei horren berri emango zaiela hurrengo bandoen bidez.

Finalmente, se comunica que esta Alcaldía-Presidencia irá adoptando las resoluciones que sean precisas en atención a la evolución que tenga la afección a la salud pública de la pandemia global provocada por el COVID 19 (Coronavirus), siendo comunicadas a la ciudadanía a través de sucesivos Bandos.

Hondarribian, 2020ko martxoaren 12an

En Hondarribia, a 12 de marzo de 2020



ALKATEA / El Alcalde

HONDARRIBIKO UDALA Jonin Sagarzazu Ancisar